

Auzoz auzo



Cano Argazkidea

Altza

esan digu Auzoa elkarteko kide Juan Carlos Ballesterosek.


24 modelo

Joan den urtean Larratxo pasealekuko Altza kultur etxean egin zuten desfilea. Aurtengo desfilean parte hartuko duten lagunen aukeraketa kultur etxean bertan egin zuten joan den astean, baina larunbateko erakustaldia frontoian izango da. *"Kultur etxean 300 bat laguntzako tokia dago, eta iaiz bete egin zen. Aurten frontoian egitea erabaki dugu, mila lagun inguru sartzen baitira bertan"*, dio Juan Carlos Ballesterosek.

Zugasti arropa dendan lan egiten duen Itziar Prietok ekimenaren helburua azaldu digu: *"Asmoa ez da salmentak izugarri handitzea. Altzatarrak, auzoan bertan, Erdialdera joan beharrik gabe, badutela non eta zer erosi kontura daitezen nahi dugu"*.

Larunbat honetan, 17 urtetik gorako 24 lagunek egingo dituzte modelo lanak, gehien-gehie-

nak auzotarrak. Koro Alfaro 52 urteko irakasle ohia modelotako bat izango da. *"Egun berezia da; makilatu eta dotore dotore jartzen zaituzte. Gainera, jendaurrean ez naiz batiere urduri jartzen"*, adierazi digu Korok. Haurrentzako jantziak, bestalde, denden jabeen seme-alabek erakutsiko dituzte pilotalekuko ibiltokian. Desfilea ikusteko txartelak Auzoa elkarteko denda guztietan eskura daitezke, musutruk.



Cano Argazkidea

Moda desfilea auzoko frontoian

Bigarren urtez jarraian, Altzako eta Larratxoko arropa dendek era bitxian aurkeztuko dituzte udazkeneko eta neguko jantziak, osagarriak eta oinetakoak: moda desfilea egingo dute. Larunbatean izango da, hilak 18, 20.30ean Altzako frontoian.

Auzoa Merkatari eta Ostalari Elkartek iaiz antolatu zuen lehen aldiz moda desfilea. *"Aurretik, kafearen astea antolatu genuen, esaterako. Hau da, elkarteko dendetan erosketak egiten zituene orori elkarteko tabernetan kafea hartzeko txartela ematen genion. Arropa dende-*

kin ere ekimenen bat egitea otu zitzaigun, eta hala sortu zen desfilea egiteko ideia",



Audariz baserria erre da

Joan den ostiralean, hilak 10, Audariz baserria erre egin zen. Audariz San Markoseko bidean dago, Pelegrinene baserritik metro gutxira. Antza denez, sutea bazkalostean piztu zen eta baserrian bizi diren bi lagunek baserritik atera ahal izan zuten. Audariz-ko paretak harrizkoak ziren eta barruko egitura, zurezkoa. Suaren ondorioz, barrualdea kiskalita geratu da.

Arropa dendek udazkeneko jantziak erakutsiko dituzte